



ILUSIOA ZABALTZEN
DUTEN IPUINAK

bibliotecainfantil.fundaciononce.es



RAMON
Paleontologoa



AENri buruz

Autismoaren Espektroko Nahasteak (AEN) gure burmuinaren **garapena eta funtzionatzeko** moduarekin zerikusia **DAUKA**.

Baina nolabait **"IKUSEZINA"** da, pertsona bakoitzak berezko itxura fisikoa duelako.

Batzuek asko hitz egiten dute, beste batzuek, aldiz, oso gutxi.

Badira **IRUDIEN BITARTEZ** komunikatzen direnak ere. Noizbehinka eskuekin mugimendu errepikakorrak egin edo gauzak behin eta berriro **"MODU BERDINEAN"** egiten saia **DAITEZKE** Kasu batzuetan, AEN duten pertsonak **kalkulua, marrazketa edo musika**. bezalako jardueretan **APARTEKO GAITASUNAK** dituzte, baina hori ez da beti gertatzen.



Euren ezaugarri ohinoa besteekin **HARREMANAK IZATEKO MODU** berezia **DUTELA** da. Batzuetan beste pertsonen erreakzioez ohartzen ez direnez, inporta ez zaiela pentsa liteke, baina hori ez da egia.

Hitzekin nola sentitzen garen azaldu behar diegu, besterik ez.

Euren **komunikazioa ere desberdina** da. Gauza berdinak **behin eta berriro** kontatzen dituzte eta horrek besteek **"deskonekta dezabela"** eragin dezake. Irratia piztu eta ondo entzuten ez denean amatatzea erabakitzen duzunean bezalakoa da...

Baina ipuin honen protagonistaren ahotsa amatatuko bazenu, pertsona **OSO BEREZI** bat ezagutzeko aukera galduko zenuke...

Ramonekin autismoa duten pertsonen **ABILEZIA** eta **GAITASUNAK** ezagutuko dituzu.





SSSHHH! Isilik.

Ez ezazue zaratarik egin. Soinu ozenek pixka bat **URDURITZEN NAUTE.**

Gainera, planetako dinosaurorik handiena aurkitzeko gertu nago eta **KONTZENTRATU** behar dut...

Ez dut gustuko nire gauzak ez diren beste batzuekin entretenitzea...

ITATXAN! HEMEN DAGO.


Munduko dinosaurorik handiena. Bai, badakit marrazki bat besterik ez dela, baina nik hobeto adierazten ditut gauzak



IRUDI
eta
ARGAZKIEN.

Nire burua aurkeztuko dut. **RAMON** dut izena eta etorkizunean **PALEONTOLOGO** aizango naiz.

Erabat ziur nago horretaz, 9 urte baino ez izan arren... **DINOSAUROEI** DAGOKIENEZ,



GUZTI-GUZTIAK

ezagutzen ditut. Ondo dakit noiz bizi izan ziren, zenbat neurtu zuten, eta baita zer jaten zuten ere...

Deinocheirus bitxia, **Therizinosaurus** ikusgarria, **Utahraptor** beldurgarria eta nire gustukoena,

TURIASAURUS izugarria, Europa osoko dinosaurorik **handiena**, duela ehunka mila urte Iberiar Penintsulan bizi izan zena.



Honako honi *Amatxosaurus*
izena jarriko diot nire **amaren omenez**,
estu-estu besarkatzen nauelako.

Baina Bea nire arreba ere dezente estutzen nau.

NIK EZ DIOT UZTEN.

Ez zait gustatzen jendeak **GOGOR**
besarkatzen nauenean edo *abisatu gabe* egiten
dutenean. Baina

BARRU-BARRUAN BEHAR DUT.



7

Amatxo eta Beari uzten diet, muxu bat ematen
diedanean **OSO POZIK** jartzen direlako,
baina besteok nire marrazkiekin
Konformatu beharko zarete.



Amatxo **OSO BEHATZAILEA** da.

Urte eta erdi nuenean, bera izan zen AENren
seinaleak nituela antzeman zuen lehena.

Sigla horrek

AUTISMOAREN ESPEKTROKO NAHASMENA esan nahi du.

8



“Espektro” hitzak **HARRY POTTER-EN**
KONTUREN BAT DIRUDI, EZTA?



Egia esan AEN dugunok **magia**
handia daukagu.
 Batzuek gainera
aparteko gaitasunak dituzte.

9

Antza, autismoak ehun ume bakoitzeko
 bati eragiten dio, baina **nire familian bi**
 gara: **NIRE OSABA** (nire amaren neba) eta ni.

Horregatik **OHARTU ZEN** nire ama hain goiz nire
 egoeraz.



10



**"DIAGNOSTIKO GOIZTIARRA
ZEHARO GARRANTZITSUA DA"**

Baietsi zuen medikuak.

Eta laster **AZTERKETEKIN**

eta

ESTIMULAZIOAREKIN

hasi ziren.

Berarekin **"KUKU TRAS"**- ean ez jolasteaz gain,

NIRE IZENA entzutean erantzutea edo

atzamarrarekin **seinalatzea**

kostatzen zitzaidan.

11

Aldiz, **MARRAZTEA** oso gustuko nuen.

Hasieran **ZENBAKIAK** bakarrik egiten nituen.

Oso dibertigarriak iruditzen zitzaizkidan
eta amatxok eta aitatzok zenbaki oso
bitxiak zirela esaten zuten.



Zuek zer uste duzue?

12



DIAGNOSTIKOA baieztatu zutenean gauza ugari gertatu ziren.

Zalantza, kezka eta azkenik **SEGURTASUNA**.



Aitak


PROFESIONALEN

laguntza aurkitu zuen eta horiek ni hezteko modua irakatsi zioten.

Orain aitatxo eta amatxo

NIREKIN JOLASEAN

ikusten ditudanean musuka jango nituzke, eta, **NIRE** moduan, horrela egiten dut.



Zerhakiak eta dinosauroak Nire gauza direnez

nire gauza direnez (beraiekin dibertitu eta asko ikasten dut), laginak neurtzeko sistema bat sortzea pentsatu dut,

INDUSKETA

PALEONTOLOGIKOETAN

ERABILTZEKO.




Teknologia

oso garrantzitsua da
zientzia garatzeko
eta nire aurrerapen
zientifikoekin
lagundu nahi dut..

Laster, dinosaurioak marrazteaz aparte,
ERREALITATEAN deskubrituko
ditut...
nik neuk indusketak eginez. ...

15



Zein
hunkigarria!...

RICHARD OWEN,
OTHINEL CHARLES MARSH,
HENRY FAIRFIELD OSBORN

eta noski,

RAMON,
PALEONTOLOGOA.



16

AMAIERA